

## AURKEZPENA

Kaixo, gu bost lagunen arteko talde bat gara.

Gure produktuaren ideia, hau da, ohe tolesgarri baten ideia duela denboraldi batez lantzen egon gara ideia hau ahalik eta gehiago hobetzeko irrikarekin. Gure produktuak bilatzen dituen helburuetako batzuk erosotasuna, eramankortasuna eta egunerokotasunean baliagarria izatea dira eta noski, ahal bada, pertsona askorentzat lagungarria izatea.

Horregatik gure bezeroek ez dira adin finko batekoak izango, baizik eta gure produktuaren beharra duten pertsonak izango dira. Adibide batzuk asko bidaiatzen duten pertsonak edo kanpistak izango lirateke baina Covid-19aren pandemiak utzi dituen ondorio ekonomikoak ikusita, prest egongo ginateke gure produktuaren beharra duten herrialdeei gure laguntza eskaintzeko. Produktuaren prezioa merkatuarekiko eskuragarria izango da baina gure bezeroek zerbait “atseginagoa” nahiago badute gure web orrialdean izango dute haien ohea sortzeko aukera.

Gure kanalei dagokionez kiroletako dendetan, hipermerkatu edota supermerkatuetan aurkitu genezake gure produktua eta etxeratzeko zerbitzu batzuk izango genituzke. Hala ere, gure webgunean ere eskuragarria izango dute gure produktua eta erosle fidelak premiatzea pentsatuta dugu.

Lehen aipatu dudan bezala bezeroek gure webgunearen bidez gurekin kontaktatu ahalko dute edozein zalantza argitzeko baina bezeroen eskuan izango da autozerbitzu bidez haiek asetzea edo gure laguntza pertsonala erabiltzea.

Diru sarrerei dagokionez, gure produktuen salmentan oinarrituko lirateke eta gure produktua 162,36€tan gutxi gorabehera baloratuta egongo zela pentsatzen dugu. Beste aldetik bertsio pertsonalizagarria dugu, bertsio honen prezioa bezeroek sortu duten ohearen materialen prezioaren araberakoa izango da.

Gure funtsezko baliabideak lehen aipatutako garraio enpresak izango lirateke, hala nola *Amazon* edo *Aliexpress*. Baita ere langile kopuru txiki bat izango genuke gure produktuaren ekoizpenean parte hartzeko. Beste erabaki batzuk adibidez behar ditugun materialen hornitzaileak aukeratzea gure eskuetan geratuko litzateke.

Gure funtsezko jarduera gure produktuaren ekoizpena izango litzateke ,hala ere, gure produktuak biltegiatzeko fabrika txikiren bat edo lokalen bat erabiltzea pentsatuta dugu.

Azkenik eta amaitzeko gure kostu nagusiak izango genituzke, alde batetik gure kostu finkoak izango ditugu hala nola produktuen ekoizpena eta langileen soldata ordaintzea eta beste aldetik kostu aldakorak. Kostu hauen adibide batzuk garraio enpresak ordaintzea eta ekoizpen materiala ordaintzea izango lirateke. Hauen prezio totala azalduta izango duzue gure inbertsioarekin batera.